

Munduko

III. Rugby Txapelketa

# Puntako jokalarien txanda

Campese, Sella, Horan eta Brooke bezelako jokalariek ez dute bere balioa azaldu

**Sailkapen fasean jokaturiko 48 partiduetan, Lomu eta Mehertens zeelandarrak, Westhuizen hego afrikarra eta Lima samoarra gazteak besteak beste, hobeto aritu dira puntako jokalariek baino. Hala ere, jokalariek onek partidu zailetan erakutsi ohi dute beren kalitatea.**

ordea, jokalarie dagokiena da. Batzuek etxerako bidea hartu dute zigorreratik: Dalton, eta Hendriks hego afrikarrak kasu. Beste batzuk lesioengatik: Benetton eta Akozoberri frantziarrak, Staples irlandarra, etab. Txapelketa honetan hala ere, Munduko jokalariek onenak gertzen dira, oraindik beren neurria eman ez badute ere.

Guztien artean itxura eskasena eman duena, David Campese australiarra izan da. Hego Afrikaren kontra, erasoan arrisku gutxi sortzeaz aparte, defentsan huts handi xamarrek egin zituen, bere aldetik izandako entseian esate baterako. Arestian aipatutakoez gain, Jaubert eta Small hego afrikarrak, Rodber eta Guscott ingelesak edo Bunce eta Fitzpatrick zeelandarrak ez dira jokoa sartu oraindik.



Orain arte ez du bere mailan jokatu David Campesek.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Esan ohi da Txapelketa handi batean, final laurdenak jokoan jarri arte ez dela benetako txapelketa ikusten. Aurrekoan esan genuen, estreinuko Hego Afrika-Australia, Ingalaterra-Samoa, Ingalaterra-Argentina eta Frantzia-Eskozia kenduta, ez genuela joko ikusgarririk antze-man. Espero dezagun atarian ditugun final laurdenetako neurketetan hobea ikustea.

Aukera behinik behin, badago joko on hori gerta dadin. Hego Afrika-Samoa partiduan esate baterako, bi joko era ezberdin ikusi ahal izango ditugu; afrikarren joko indartsua eta samoarren bizitasuna eta joko alai izango dira aurrez aurre. Hala ere, Zeelanda Berria-Eskozia iruditzen zaigu izan daitekeela ikusgarriena. Ingalaterra-Australia ez dugu ahaztuko, baina, aste dugu defentsak gailenduko direla.

Gaur ukitu nahi dugun arloa,

● **Serge Blanco.** Caracasen jaio eta bizitza osoan Miarritzen arituen jokalariek ohiak, Hego afrikako Pretorian jantzi zuen lehen aldiz selekzioko elastikoa 1.980an. Bisitaldi hartatik itzultzerakoan, apartheidak bukatzen ez zen bitartean zela gehiago itzuliko adierazi zuen. Hamahiru urte pasa ziren berriro itzuli zen arte 1.993an. Mundiala dela eta, han izan da bisitaldian eta hau adierazi du «Rugbyak soilik ez du hango egoera konponduko».

● **Hiru Mundialetan entseugile.** Orain arte jokaturiko bi

## BOTE LASTERREAN

Mundialak eta III.go honetan jokatu diren neurketak kontuan hartuta, lau jokalariek egin dute entseu bat, gutxienez hiru Mundialetan: Italiako Macello Cuttittak, Ingalaterako Rory Underwoodek, Galeseko Ieuan Evansek eta Eskoziako Gavin Hastingsek.

● **Bolikostakoak haserre.** Bolikostako Pierre Cassagnet managera, oso haserre agertu da Tongak izan duen jarrerarekin. Izan ere, bi nazio hauetako selekzioen arteko partiduan, 24 urte eta bi seme-alaba (4 eta 2 urtekoak) di-

tuen Max Brito joklariak, bizkarrerezurreko lesioa izan zuen. Ondorioz, dakizuen bezala, tetraplegikoa geratuko da. Cassagneten haserre, Tongakoek Britoren egoera jakiteko izan duten interes ezagatik da. Aldiz, hitz jatorrek izan ditu Kopako antolatzaileentzat, oso azkarrak izan baitziren arazoari aurre egiten.

● **Campese, entseugile nagusia.** Sydney taldean jokatzeko duen 33 urteko David Campese australiarra da Munduko Kopan entseu gehien egin duena. Selezioko elastikoa 90 aldiz jantzi du.

## SAILKATUTAKO NAZIOEN BEREZITASUNAK

### INGALATERRA

Biztanlegoa	48.000.000
Azalera	130.478 km <sup>2</sup>
Lizentziak	375.000
Entrenatzailea	Jack Rowell
Klub kopurua	1705
I. Txapelketan	Final-laurdenetara
II. Txapelketan	Txapeldunordea
94-95eko emaitzarik onena	Zeelanda B.-Ingalaterra: 9-15
Liga txapeldun	Leicester
Kopa Txapeldun	Bath

### ZEELANDA BERRIA

Biztanlegoa	3.500.000
Azalera	270.000 km <sup>2</sup>
Lizentziak	100.000
Entrenatzailea	Laurie Mains
Klub kopurua	392 (lehen mailan)
I. Txapelketan	Txapeldun
II. Txapelketan	Final-laurdenetara
94-95eko emaitzarik onena	Zeelanda B.-Hego Afrika: 13-9
Liga txapeldun	
Herriarteko Txapeldun	Ranfurry Shield

### AUSTRALIA

Biztanlegoa	17.800.000
Azalera	7.700.000 km <sup>2</sup>
Lizentziak	130.000
Entrenatzailea	Bob Dwyer
Klub kopurua	
I. Txapelketan	Finalerditara
II. Txapelketan	Txapeldun
94-95eko emaitzarik onena	Australia-Zeelanda B.: 20-16
Liga txapeldun	
Herriarteko Txapeldun	Queensland

### ESKOZIA

Biztanlegoa	5.229.000
Azalera	77.773 km <sup>2</sup>
Lizentziak	18.000
Entrenatzailea	Douglas Morgan
Klub kopurua	98 (lehen mailan)
I. Txapelketan	Final-laurdenetara
II. Txapelketan	Finalerditara
94-95eko emaitzarik onena	Frantzia-Eskozia: 21-23
Liga txapeldun	
Herriarteko Txapeldun	Stirling County

## PILOTA

### Salaberria-Beloki eta Ariznabarreta-Arretxek antzeko pilotak aukeratu zituzten

RAMON BASALDUA / BILBO

Salaberria-Beloki eta Ariznabarreta-Arretxe bikoteak Logroñoko Adarragan izan ziren atzo, datorren larunbatean bertan jokatu duten Euskadiko partidurako pilotak aukeratzeko. Julien Salaberria eta Ruben Belokik 104,8, 104,6 eta 105 gramoko hiru pilota aukeratu zituzten. Karmelo Ariznabarreta eta Fernando Arretxek 106,4, 103,7 eta 104 gramoko pilotak hartu zituzten saskitik. Hasiera batean, Salaberria eta Beloki dira partidua irabazteko favorito nagusiak. Nolanahi ere, norgehiagokak garrantzi handiagoa du Ariznabarreta eta Arretxe bikotearentzat.

### BERGARAN BERGARAKO PILOTEAREN JAIALDIA

Bergarako pilotalekuan asteartean jokatu zen Mendekosteetako torneo finala izan behar zen pilotaleku horretan lanak hasi aurretik eman behar zen azken jaialdia. Ikusirik ordea lanak astelehenera arte ez direla hasiko, bihar ere jaialdia emango da Bergaran. Bi partidu jokatuko dira arratsaldeko 16.45etatik aurrera. Lehen partiduan Badiola Iak eta Oregi IIak Koka eta Arroyoren aurka jokatu dute. Bigarrenean, Etxaniz eta Lasak Nagore eta Zezeagaren aurka jokatu dute.

### TXOKOAN

● **Gipuzkoako herri arteko txapelketa.** Eskuzko txapelketa finalerdietan da jada, gaur gauean jokatu dira itzulerako partiduak. Azkoitian bertako ordezkariak Donostiako aurka jokatu dute. Azkoitiak 3-0 irabazi zuen joanekoan. Azpeitian, bertakoek Soralezaren aurka jokatu dute. Joanekoan Azpeitiak 2-1 irabazi zuen.

● **Literatur lehiaketa.** Iñaki Zabaleta Urkiolak irabazi du Pilotarien Biltzarren literatura lehiaketa. 'Agur jaunak' izan da sari hau irabazi duen lanaren izena. Bigarren saria Sergio Martinez palista arbarrentzat izango da.